



### Prentsa-oharra – Berlingo Euskal Etxea

### Agirre in Berlin 1941-2016

2016 maiatzak 31 - ekainak 3

2016an 75 urte betetzen dira Jose Antonio Agirre lehendakaria Europa okupatutik ihesi Berlinen egon zela. Urteurrena gogoratu eta Agirre lehendakaria, Euskal Herriko historia eta erbesteko Eusko Jaurlaritzaren lana Alemanian ezagutzera emateko Berlingo Euskal Etxea - *Gernika Deutsch- Baskische Kulturverein e.V.*-ek [www.AgirreInBerlin.eu](http://www.AgirreInBerlin.eu) web-gunea osatu eta ekitaldi ezberdinak antolatu ditu Berlinen.

Web-gunean ekitaldien aurkezpen eta azalpenaz gain, Euskal Etxeak sortu eta Agirreren Berlingo egonaldia isladatzen duen mapa dago eskuragarri, hori prestatzeko erabilitako testuen alemanierazko itzulpenekin batera.

Jose Antonio Agirre ez zen soilik demokratikoki hautatutako lehen lehendakaria izan, II. Mundu Gerraz geroztik Europa demokratiko baten sorreran eginkizun garrantzitsua jokatu zuen figura politikoa ere izan zen. Euskal Herrian zein kanpoan adostasunez onartutako figura politikoa.

Berak gidatutako Erbesteko Eusko Jaurlaritzak era aktiboan lan egin zuen Bigarren Mundu Gerra ondoko Europa berri eta batu baten alde, garai hartan sortutako erakundeetan parte hartuz.

Ekitaldiak hiru esparrutan banatzen dira: Batetik, Agirreren idatzien itzulpena eta Euskal Etxeak osatutako maparen aurkezpena, hitzaldi batekin osatuko dena. Bestetik, alderdi akademikoa: Etxepare Institutua, Leipzigeiko Unibertsitatea eta Renoko William Douglas Center for Basque Studies-ak antolatu eta ekainaren 1ean Humboldt Unibertsitatean egingo den [The International Legacy of Lehendakari José A. Agirre's Government](#) kongresua. Erbesteko Eusko Jaurlaritzak eta Agirreren ekarpena aztertuko duen jardunaldia da honakoa, ekainaren 9an New Yorken bukatuko den nazioarteko kongresuaren bigarren saioa. Bukatzeko, esparru kulturala: Berlingo Euskal Etxeak antolatu eta Etxepare Institutua eta Leipzig eta Humboldt unibertsitateen laguntzaz osatutako [Agirre in the Arts: The Spanish Civil War and the Basque Exile in the Arts](#) kongresua, ekainaren 2an Humboldt Unibertsitatean lekua hartuko duena. Espainiako Gerra Zibila, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren lana eta beste hainbat gai diziplina artistiko desberdinen ikuspuntutik aztertuko ditugu egun horretan.

Bi kongresu horietaz gain, Berlingo Euskal Etxeak ondoko ekitaldiak prestatu ditu:

1. Maiatzak 31: Iñaki Goiganaren hitzaldia. Berlingo Cervantes Institutuan. *La aportación vasca a la democracia cristiana europea y la creación de la unión europea tras la II Guerra Mundial: José Antonio Agirre y Alberto Onaindia*
2. Ekainak 2: *Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen Zaldia eta beren itzalak – Die Pferde und ihre Schatten* poesia eta kantu emanaldiaren estreinaldia, Maxim Gorki Theaterreko 9 aretoan.
3. Ekainak 3: Xabier Irujoren *Memoirs of a Basque Secret Agent: Nazi Concentration Camps and the Mechanics of Death* hitzaldia. Nazien Frantziako okupazio garaian kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten iparraldeko juduen historia aztertzen duena.

Ekitaldi, mapa, itzulpen eta azalpen guztiak euskaraz, alemanez eta gazteleraz daude eskuragarri gure [www.AgirreInBerlin.eu](http://www.AgirreInBerlin.eu) web-gunean.

## // Ekitaldietan parte-hartu edota babestuko duten pertsonen zerrenda:

Mikel Antón (Europa Gaietarako zuzendaria, Eusko Jaurlaritza)  
Prof. Dr. Mari Jose Olaziregi (Etxepare Euskal Institutua, MHLI - EHU)  
Prof. Dr. Xabier Irujo (Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno)  
Prof. Dr. Carsten Sinner (Universität Leipzig)  
Prof. Dr. Joan Villarroya Font (Universitat de Barcelona)  
Nicholas Rankin (Kazetaria BBC World)  
Miren Arzalluz (Deustuko Unibertsitatea, London School of Economics; erakusketa-komisarioa)  
Dr. Carlos Collado Seidel (Philipps-Universität Marburg)  
Dr. Benjamin Inal (Philipps-Universität Marburg)  
Hilari Ragner i Suñer (Historialaria, Montserrat Abadia)  
Kirmen Uribe (Idazlea)  
Mikel Urdangarin (Musikaria)  
Iker Sánchez Silva (Orkestra zuzendaria)  
Iñaki Goiogana (Historialaria, Sabino Arana Fundazioa)

## // Ekitaldiak

**Maiatzak 31** (19:00) Instituto Cervantes Berlin

**Iñaki Goiogana** (Sabino Arana Fundazioa)

*La aportación vasca a la democracia cristiana europea y la creación de la unión europea tras la II Guerra Mundial: José Antonio Agirre y Alberto Onaindia (hitzaldia gazteleraz)*

**Ekainak 1** (9:00) Humboldt-Universität zu Berlin, Fritz-Reuter-Saal

Nazioarteko kongresua ingelesez: [The International Legacy of Lehendakari José A. Agirre's Government](#)

**Ekainak 2** (9:00) Humboldt-Universität zu Berlin, Senatssaal

Kongresua ingelesez: [Agirre in the Arts: The Spanish Civil War and the Basque Exile in the Arts](#)

**Ekainak 2** (20:30) Studio Я, Maxim Gorki Theater

**Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin**

*Zaldia eta beren itzalak – Die Pferde und ihre Schatten: Poesia eta kantu emanaldia euskaraz alemanezko azpitoluekin.*

**Ekainak 3** (19:00) Mediengalerie ver.di

**Xabier Irujo** (Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno)

*Memoirs of a Basque Secret Agent: Nazi Concentration Camps and the Mechanics of Death*

## // Harremanetarako

Telefonoa: +49 (0) 1522 521 66 28

E-Posta: [info@agirreinberlin.eus](mailto:info@agirreinberlin.eus)

Web-gunea: [www.AgirreInBerlin.eus](http://www.AgirreInBerlin.eus)